

Arropa denda batera sartu zara. Zer nahi duzu? galdetu dizute

JOSU SANJURJO ALZURI

DBH 1. eta 2. kurtsoak 1. saria

Berako Labiaga Ikastola



Baserritarra naukazu
ez *Heavy* eta ez *Duke*
erostera joan gabe
pasa ditut hainbat urte
dendara sartu naiz eta
itsusi, ilun ta kutre
neskatxak «si quiere algo?»

holakorik nahi al huke?
Diseinatzaile hain onak
ta makina bat bertute
bakoitzak bere iritzia
ta ustea beti uste
nire ustez debekua
jarria beharko luke
jo, gaur egungo gazteek
gustu zipitzik ez dute.

Gazteak moda kontutan
galdu biharrin arreta
hartu beharko lukete
euren bizitzako meta
kaleko denda guztiak
galtza zabalez beteta
eta galtza politenak
almazenean gordeta.
Gazteak galtza zabalak
nik bonbatxoak ta meta
hau al da gizarte batek
eskatzen duen oreka?
Beno ni banoa orain
baserriraino lasterka
galtza zabalenak ere
estuegi dauzkat-eta.